Apal honek 'bajo, humilde' adierazi nahi du *(OEH_apal:* 'abajo', 'hacia abajo'; 'bajo'); toponimian toki garaiegia, altuegia ez dena izan daitekeela uste dugu[41]; *-aga* toki atzizkia. Bigarren osagaia *troka* dugu, 'barranco, hondonada'.

Zeberio, 11 pol.; 170 partzela. X: 515.747,09 Y: 4.778.662,03

> ***Apalagazelaia, -a*** *(lursaila)*
> DJE-A, 54 01: Apala-celaya
>
> Otra heredad llamada APALA-CELAYA; confina, por Norte, con terrenos de don Juan Pedro Andicoechea; por Mediodía, con los de don Domingo Echevarría; por Poniente, con los propios del cura, y por los de Oriente, con los del señor Andicoechea. Contiene de medida, con sus herbales, 911 estados superficiales que equivalen a 3.965 metros cuadrados y 45 centímetros.

Bigarren osagaia, oraingoan, *zelai* dugu, 'llano', *troka* horri kontrajarria.

Zeberio, 11 pol.; 170 partzela. X: 515.747,09 Y: 4.778.662,03

> ***Atxondo*** *(basoa)*
> DJE-A, 54 01: Achondo
>
> Otro monte llamado ACHONDO; confina, por Norte y Mediodía, con terrenos de don Felipe Artaraz y de don Domingo de Echevarría; por Oriente, con la regata del mismo Artaraz, y por Poniente, con los de don Manuel Urrecha. Contiene de medida 2.347 estados superficiales que equivalen a 8.927 metros cuadrados y 98 centímetros.

40 Zeberioko Andikoetxea baserriko ondasunen arteko *Asuntza* basoko 1930eko albiste historikoan '...de la casería APALAGA BECOA...' ikusi dugu.

41 "Como sobrenombre aparece en la Edad Media *Apala.* (Cf. top. Quintana*palla)" (*Agud-Tovar_*apal).* Mitxelenak, bestalde, (2011: 254) "Aparece asimismo una sorda vasca en lugar de un grupo de consonantes sonoras... en *ap(h)al* 'humilde' ... que puede muy bien proceder de *ad valle*... *Aphala* arroyo y *Aphalen* monte en el País Vasco francés." diosku.
Baita honako hau ere (*aip. lan.*: 57): "*ap(h)al* 'humilde, manso' 'abajo'. Empleado como antropónimo: *domna Apalla, Appalla, Gaxto Apala* uno de los hombres de Pedro de Abendaño. Apellidos: *Apalategui, Apalena, Apalza (?), Apalloa, Apallua, Apalluaga, Aphalaitz; Héguiaphal.*

Haiz, atx hitza eta *-ondo* posposizioaz osatutakoa.

Arantzazu, 1 pol.; 224 partzela. X: 515.783,29 Y: 4.777.462,86

Albiste historikoa

1922 Otsailak 14. Atxondo basoa etxaldetik banandu eta Erregistroko 61 finka osatzera pasatzen da.

Hilario Soloeta Amorrortuk Bonifazio Undurraga Olabarrietari salduko dio baso hau eta honen eskuetara eta oinordekoenetara pasatuko da.

> ***Beko ortua, -a*** *(ortua)*
> DJE-A, 54 01: Beco-ortua
>
> Una heredad llamada BECO-ORTUA; confina por Norte y Oriente, con terrenos de don Felipe Artaraz; por Mediodía, con los del señor Andicoechea; por Poniente, con camino de servidumbre. Contiene de medida, con sus ribazos, 112 estados que equivalen a 426 metros cuadrados y 5 centímetros.

Behe + ko leku genitiboa, *ortu* hitza eta artikulua osagaiak dituen hitza.

Zeberio, 12 pol.; 184 partzela. X: 515.544,58 Y: 4.777.941,91

> ***Belaki*** *(basoa)*
> DJE-A, 54 01: Belaqui
>
> Otro monte llamado BELAQUI; confina, por Norte, con terrenos de don Domingo de Echevarría; por Oriente, con los de don Felipe Artaraz y del mismo señor Echevarría; por Mediodía, con el del expresado señor Artaraz y con los terrenos del mismo cura; Poniente, con montes de don Juan Pedro Andicoechea y el señor Artaraz. Contiene de medida 1.792 estados superficiales que equivalen a 6.828 metros cuadrados y 28 decímetros.

Belaki honen adieretako bat ‘belladona’ (*Atropa belladona*) da (*OEH_belaiki*), landare posoitsua; hau ote da gure kasua?

Gure ustez, baina, kasu honetan fitonimo honek atzizki batez lagundua agertu beharko luke (*-tza, -eta, -aga* edo horrelakoren bat).

Edo, ez ote da *belaki* hau lan honetan zehar bizpahiru aldiz azalduko zaigun *bellakin* (palatalizatua eta amaierako azalpen gabeko *-n* batez lagundua) hura?

Beloki, akaso?[42]

Arantzazu, 1 pol.; 211 partzela. X: 515.756,24 Y: 4.777.738,27

Edo/ta (*aip. lan.*: 522): “*Apala*, al parecer un adjetivo como *Belza* o *Zuria*, suele ser nombre de mujer...”

42 “En los siguientes, probablemente sea prefeible pensar ante todo en *bel(h)ar, berar* ‘hierba’: *Belamendia, belandia, Belate, Belategui, Beloqui*” (Mitxelena, 2011: 74).

***Bellakin** (basoa)*
Ahoz: Bellakin

Bellakin baso hau Arantzazuko udalerriari badagokio ere, Zeberion dago inskribatua, ugazabak adierazi digunez.

Hitzen esanahia argitu bidean, Agud-Tovarren Etimologietara jo behar dugu. Hauek dioskue *bello bero*ren txikigarria dela Ekialdeko hizkeretan; eta *belloki*[43] hori 'lugar resguardado del viento'. Azken *-n* horren azalpenerako, Salaberrik diosku (2015: 345) "cabe mencionar que existe una cierta tendencia, en algunos nombres, a desarrollar una *-n* aparentemente no etimológica, ignoramos el porqué (*-garai > -garain, Urrutia > Urrutina* por ejemplo)".

Beloki hitzaren esanahia azaltzen duela, Belaskok diosku (2000: 121) "Yrigoyen prefiere relacionarlo con el topónimo *Belloc* 'lugar hermoso', del que sería una réplica…". Eta *lakain* hitzaren azalpenean, (op. cit.: 241) "… quizá sea un compuesto de *-ain,* sufijo que suele designar propiedad y que sufija nombres propios de persona." Bide honetatik, Bellok delako baten jabegoaz hitzegingo genuke.

Konposizioan, bestalde, *-o-* hori *-a-* bihurtzen da (*arto*, baina *artaburu*).

Dena den, aitortu bezala, itsu-itsuan gabiltza kasu honetan.

Arantzazu, 1 pol.; 234 partzela. X: 515.859,42 Y: 4.777.736,15

Orrialdeotan zehar ikusiko dugunez, hiru etxalde desberdinetako lau basok dute *Bellakin* izena: Andikoetxeatarrena lehena, erreferentziatu gabea; *Errementeria* etxaldeko hau, 234 partzelari dagokiona; *Etxebarrikoa* etxaldeari dagozkion 212, 275 eta 276 partzelak; eta bere egunenan *Zalbidebarrenengoa* etxaldekoa izan eta gaur Bilbaotarrena den 215 partzelari dagokiona. Mapetan begiratzen badugu, bost partzelok elkarren ondoan daudela ikusiko dugu.

Are, ez dakigu ikusi berri dugun *Belaki* hori ere, 211 partzelari egoki eta aldameneko 212ari itsatsia dagoena, ez ote den *Bellakin* izango.

***Iruaretxeta** (basoa)*
DJE-A, 54 01: Yruarecheta

> Otro monte llamado YRUARECHETA; confina, por Norte y Mediodía, con terrenos del señor Andicoechea; por Oriente y Poniente, con terrenos del señor Artarazo y del mismo Andicoechea. Contiene de medida 2.947 estados superficiales que equivalen a 11.210 metros cuadrados con 38 centímetros.

Izen honen osagaiak *hiru* eta *aretx* 'roble' *(Quercus robur)* hitzak eta ugaritasuna zein lekua adierazten duen *-eta* atzizkia ditugu.

Zeberio, 12 pol.; 44 partzela. X: 515.348,81 Y: 4.777.885,16

---

23 *Belloki* horren barnean *-(t)oki* leku atzizkia izan daiteke.

Albiste historikoa

1924 Maiatzak 24. *Iruaretxeta* basoa etxaldetik banandu eta Erregistroko 66 finka osatzera pasatzen da.

Harrezkero, San Anton Rekagorritarrena dugu.

> ***Iturrietxeburu*** *(basoa)*
> DJE-A, 54 01: Iturribi-chiburu / Iturri-echeburu
>
> Otro monte titulado ITURRIBI-CHIBURU; confina, por Norte, con terrenos de don Juan Pedro de Andicoechea y con la propiedad de don Felipe de Artaraz; y por Poniente y Mediodía, con los montes del mismo don Felipe Artaraz, y por Oriente, con los del señor Andicoechea. Tiene de medida 1.450 estados superficiales que equivalen a 5.515 metros cuadrados y 80 centímetros.
>
> Segregado así bien de la finca de este número el monte titulado Iturribi-chiburu, cuyo verdadero nombre es Iturri-echeburu…

Iturri + etxe + buru (= 'goiko aldea') daude izen honen esanahiaren azpian.

Arantzazu, 1 pol.; 208 partzela. X: 515.569,90 Y: 4.777.851,13
209 partzela. X: 515.522,34 Y: 4.777.836,69
273 partzela. X: 515.613,36 Y: 4.777.870,56
Zeberio, 12 pol.; 17 partzela. X: 515.484,25 Y: 4.777.828,67

Albiste historikoa

1922 Urriak 5. *Iturrietxeburu* basoa etxaldetik banandu eta Erregistroko 65 finka osatzera pasatzen da.

Hilario Soloeta Amorrortuk Arantzazuko auzokide den Martina Zugazabeitia Urrengoetxeari salduko dio finka hau. Honek, Pedro San Anton Bustinzari. Harrezkero, San Anton Rekagorri sendiarena dugu.

> ***Mimenaga*** *(belartza)*
> DJE-A, 54 01: Mimena
> DJE-A, 434 01: Miriena
>
> Herbal llamado MIMENA; confina, por Norte, Oriente, Mediodía y Poniente, con terrenos de don Juan Pedro Andicoechea. Tiene de medida 54 estados superficiales, que equivalen a 205 metros cuadrados con 41 centímetros cuadrados.

Osagaiak *mimen* landare izena (*Salix fragilis*)[44] eta *-a* artikulua ditugu. Gure ustez, artikulua ez eze, *-aga* toki edo ugaritasun atzizkia bera dugu.

44 Gorrotxategik diosku (2004: 243) landare hauek erreka ondoetan landatzen zirela beti, kimu luze eta malguak saskiak egiteko erabiltzen ziren eta.

***Ortuzar** (baso zatia)*
DJE-A, 54 01: Ortuzar

> Un retazo de monte llamado ORTUZAR; confina, por los cuatro vientos, con terrenos del señor Andicoechea. Contiene de medida, 222 estados, que equivalen a 744 metros cuadrados y 20 centímetros.

Osagaiak *ortu* eta *zahar* izenak ditugu.

***Otsatezarreta** (basoa)*
DJE-A, 54 01: Otz-ate-sarreta

> Otro monte llamado OTZ-ATE-SARRETA; confina por Norte, con terrenos de don Domingo Echevarría; por Oriente, con los de José Larrea; por Mediodía y Poniente, con los del señor Andicoechea. Contiene de medida 693 estados que equivalen a 1.636 metros cuadrados y 17 centímetros.

Osagaiak *otsa-* (konposizioan ematen den *otso* 'lobo'ren aldaera), *ate* 'portillo, desfiladero', *zahar* eta tokia, lekua adierazten duen *-eta* atzizkia[45].

Arantzazu, 1 pol.; 115 partzela. X: 515.963,96 Y: 4.778.455,87
Zeberio, 11 pol.; 183 partzela. X: 515.898,87 Y: 4.778.455,87

***Otsarte** (lursaila)*
DJE-A, 54 01: Otzarte

> Otra heredad llamada OTZARTE; confina, por Norte, con terrenos de don Juan Pedro Andicoechea y don Domingo Echevarría; por Mediodía y Oriente, con los de Andicoechea, y por Poniente, con terrenos de don Felipe Artaraz. Contiene, con sus herbales, 416 estados superficiales que equivalen a 1.582 metros cuadrados y 46 centímetros.

Osagaiak *otsa-* (konposizioan ematen den *otso* 'lobo'ren aldaera) eta *arte* 'entre, paso estrecho, desfiladero' (Belasko, 2000: 317).

***Pagatzagandikoa, -a** (lursaila)*
DJE-A, 54 01: Pagas-andicoa

> Otra heredad llamada PAGAS-ANDICOA; confina por Norte y Poniente, con terrenos de don Juan Pedro de Andicoechea; por Mediodía, con los mismos del señor cura, y por Oriente, con el camino servidumbre. Contiene de medida, con sus herbales y un retazo de jaro, de 656 estados superficiales que equivalen a 2.495 metros cuadrados y 42 centímetros.

Osagaiak *pago* 'haya', *-tza* toki-ugaritasun atzizkia[46], *-aga* atzizkia, *(h)aindi 'beste aldean' eta -ko* toki atzizkia.

45 "Atzizki honek bi esangura ditu, ugaritasuna eta besterik gabe "lekua", baina biak batera ere har ditzake (Gorrotxategi, 2004: 14).

46 "... el final el sufijo locativo-abundancial *–tza*, y digo «locativo-abundancial» porque está claro que en toponimia en ocasiones, en nombres como *Beintza* (N) y *Gaintza* (G, N), es meramente locativo, a pesar de ser abundancial en voces del léxico común (Salaberri, 2011: 146).

Zeberio, 12 pol.; 30 partzela. X: 515.629,61 Y: 4.778.189,48

Pagatzagaemetikoa, -a *(lursaila)*
DJE-A, 54 01: Pagas-emeticoa

Otra heredad llamada PAGAS-EMETICOA; confina, por Norte, con una heredad del mismo cura; por Poniente y Mediodía, con terrenos de don Juan Pedro Andicoechea, y por Oriente, con camino carretil. Contiene de medida, con sus herbales, 666 estados superficiales que equivalen a 2.533 metros cuadrados y 46 centímetros.

Osagaiak *pago* 'haya', *-tza* toki-ugaritasun atzizkia, *-aga* toki atzizkia, *hemendik 'alde honetatik' eta -ko* leku genitiboa. 'Alde honetako pagadia', aurrekoari kontrajarria.

Zeberio, 12 pol.; 30 partzela. X: 515.629,61 Y: 4.778.189,48

Sanadrianalde *(lursaila)*
DJE-A, 54 01: San Adrian-alde

Otra heredad llamada SAN ADRIAN-ALDE; confina, por Norte, con terrenos de don Juan Pedro Andicoechea; por Oriente, con camino de servidumbre, y por Poniente, con los de don Domingo Echevarría. Contiene de medida superficial, con sus herbales, 464 estados que equivalen a 1.755 metros cuadrados con 6 centímetros.

Osagaiak *San Adrian* eta *-alde* posposizioa.

Zeberio, 11 pol.; 224 partzela. X: 515.717,98 Y: 4.778.555,13

Sanadrianalde *(sastraka)*
DJE-A, 54 01: San Adrian-alde

Un jaro llamado SAN ADRIAN-ALDE, con un retazo de monte; confina, por Norte, con terrenos del señor Andicoechea y con el señor Echevarría; por Oriente, con terreno propio del exponente y, parte, con camino carril; por Mediodía, con los del señor Echevarría y con un monte de esta propiedad, y por Poniente, con los del señor Andicoechea. Contiene de medida 4.229 estados que equivalen a 16.056 metros cuadrados y 79 centímetros.

Uribitarte *(lursaila)*
DJE-A, 54 01: Uribitarte

Una heredad llamada URIBITARTE; confina, por Norte, con terrenos de don Juan Pedro de Andicoechea; por Oriente, con los de don Domingo Echevarría; por Mediodía y Poniente, con un camino de servidumbre. Contiene de medida 132 estados superficiales que equivalen a 5.002 metros cuadrados con 3 centímetros.

Osagaiak *uri, bi* zenbatzailea eta *-arte* posposizioa. 'Bi etxeren artea'. *Uri* hitzak 'herrigunea' esanahiaz gain, 'etxea' ere esan nahi zuen (Gorrotxategi, 2012: 185).

Zearrandia, -a *(basoa)*
DJE-A, 54 01: Sear-andia

Un monte titulado SEAR-ANDIA; confina, por Norte y Poniente, con terrenos de don Domingo de Echevarría; por Mediodía, con terrenos de don Felipe Artaraz; por Oriente, con los de don José Larrea y don Juan Pedro de Andicoechea. Contiene de medida 2.725 estados superficiales que equivalen a 10.365 metros cuadrados y 90 centímetros.

*Zear (OEH_ze(h)ar): '*terreno inclinado, ladera'*) + haundi +* artikulua.

Albiste historikoa

1922 Otsailak 15. *Zearrandia* basoa etxaldetik banandu eta Erregistroko 62 finka osatzera pasatzen da.

Hilario Soloeta Amorrortuk Julian Iruarrizaga Larraskituri salduko dio baso hau.

Zearreta *(lursaila)*
DJE-A, 54 01: Searreta

Otra heredad llamada SEARRETA; confina, por Norte, con camino carretil; por Oriente, con terrenos de don Domingo Echevarría; por Mediodía, con los de don Juan Pedro de Andicoechea; y por Poniente, con los de don Felipe Artaraz. Contiene de medida, incluyendo los herbales, 309 estados superficiales que equivalen a 1.175 metros cuadrados y 44 centímetros.

*Zear (OEH_ze(h)ar: '*terreno inclinado, ladera'*) + eta* ugaritasuna zein tokia adierazten duen atzizkia.

Zeberio, 12 pol.; 21 partzela. X: 515.758,73 Y: 4.778.223,88

Zearreta *(sastraka)*
DJE-A, 54 01: Searreta
DJE-A, 71 01: Cearreta

Jaro llamado SEARRETA; confina por Norte y Oriente, con propiedad de don Domingo Echevarría; por Mediodía y Poniente, con terrenos de don Juan Pedro de Andicoechea, y contiene de medida, incluyendo sus cerraduras, 382 estados superficiales que equivalen a 1.072 metros cuadrados y 72 centímetros.

Zeberio, 12 pol.; 21 partzela. X: 515.758,73 Y: 4.778.223,88

Zearretaburu *(basoa)*
DJE-A, 54 01: Searretaburu
DJE-A, 70 02: Cearretaburu

Otro monte llamado SEARRETABURU; confina, por Norte, con terrenos de don Juan Pedro Andicoechea y con los de don Domingo Echevarría, y con terrenos de esta propiedad; por Oriente, con terrenos del señor Andicoechea y el señor Echevarría; por Mediodía, con camino carretil y de Andicoechea. Contiene de medida 912 estados que equivalen a

3.469 metros cuadrados y 25 centímetros.

Osagaiak aurreko *zearreta* eta *buru* 'goiko aldeko partea, gaineko partea' adierazten duena.

Zeberio, 12 pol.; 21 partzela. X: 515.758,73 Y: 4.778.223,88

Zimelbaltza, -a *(basoa)*
DJE-A, 54 01: Simelbalsa

Un monte llamado SIMELBALSA; confina, por Norte, con terrenos de don Ramón Barrenechea y de don Julián Ibarrondo; por Mediodía, Poniente y Oriente, con los del señor Andicoechea. Contiene de medida, con sus cerraduras, 652 estados que equivalen a 2.475 metros cuadrados.

Osagaiak *zimel (OEH_zimel: '*tierra dura, poco fértil'*) + baltz (iluna)* + artikulua.

Zeberio, 11 pol.; 171 partzela. X: 515.746,56 Y: 4.778.801,20

Errementeriarrak. Albiste historikoa

Perez Urraza 2017: 11

1589 Juan Rementeria Argiñanoren testamentua. Arantzazuko elizateko auzokidea da, eta Martin Aloarena den Aloa Barañano baserriak duen hilobian lurperatzea eskatzen du (Perez Urraza, *400 urteko... op. cit.* 11).

1590 Juan Rementeria Argiñano zenaren alaba eta oinordeko den Maria Argiñano eta Patxi Larrea Argiñano ezkontide arantzazuarrek boterea ematen diote Otxoa eta Juan Argiñano Areiltza aita-semeei, Martin eta Juan Aloa aita-semeei ... osotutako pertsona multzo bati (*Ibid.*).

1612 Juan Larrea Argiñano zeberiotarra Pedro Larrea Argiñano arantzazuarraren semea dela agertzen da (*Ibid.*).

1614 Juan Gorostiza eta Mª Ortiz Gesala ezkontideek dotearen balioa ordaintzen diote Arantzazukoa den Pedro Rementeria Argiñanori (Patxi Larrea Rementeriaren semea), María Gorostiza Gesala, euren alaba, Argiñano Rementeria baserriko oinordeko den Juan Rementeriarekin ezkondu delako (*Ibid.*).

1627 Argiñanoko Patxi Larrea Rementeriak egiten duen testamentuaren ondorioz, bere seme Juan Rementeria izango da oinordeko (*Ibid.*).

1633 - Patxi eta Juan Larrea Rementeria Argiñano aita-semeek 17 gaztainondo eta intxaurrondo bat saltzen dizkiote Martin Ibarrondori (*Ibid.*).

1639 Juan Rementeria Gorostiza eta Katalina Kareaga Arbilduren arteko ezkontza kontratua. Alde batetik, Juan Rementeria Argiñano, Maria Gorostizaren alargunak, Juan semeari dotetzat Rementeria Argiñano baserriaren erdia ematen dio, beste erdia semeak

berak daramalarik. Eta bestetik, Juan Kareaga eta Mª Saenz Arbildu ezkontideek alabari dotetzat 200 dukat ematen dizkiote (*Ibid.*).

1670 Juan Arana Arkulandak idi parea erosten dio Patxi Rementeria arantzazuarrari 68 dukatetan, erdia Domusantu egunean eta beste erdia urte beteren epean ordaindu beharrekoak (*Ibid.*).

1678 Martin Ozerin Argiñano eta Patxi Rementeria Argiñano, biek eurenak diren *Bizkarra* basoen ondoan dauden *Aldai* eta *Iturrioz* basoen trukaketa egiten dute *(ZUA. 21. karp. Eskribaua: Juan de Urquiza. 25-26 fol.).*

> En el barrio de Arguiñano de este Valle de Zeberio a Diez y seis días del mes de febrero de mil y seiscientos y setenta y ocho años, ante mi el escribano y testigos parecieron presentes Francisco de Rementeria arguiñano, vezino de este dho Valle, de la una parte y de la otra parte Marttin de Ocerin arguiñano su vezino, tamuien de este dicho valle == y dijeron que estavan convenidos de trocar y hacer trueque y cambio de unos pedacos de montes, el uno al dho el dho al otro sitos en este dho Uarrio por la claridad y conbeniencia reciproca… a Vista y tanteo de hombres buenos nombrados para el efetto y el dho trueque. Venta y cambio es en esta manera ==
> Primeramente el dho don Francisco de Rementeria da al dho Marttin de Ocerin Eguia su vecino un pedazo de monte llamado ALDAY que esta junto y entreberado con montes del dho Marttin de Ocerin arguiñano y también se llama ALDAY
> Y el dho Marttin de Ocerin da en trueque y cambio del dho monte llamado Alday al dho Francisco de Arguiñano Rementeria un pedaco de monte del tocante en el termino que llaman de YTURRIOZ junto a la casa y casseria de Vizcarra Y Junto Pegante en medio de los montes de la dha Cassa de Vizcarra Y sus dueños Y montes de la casa de arguiñano echebarria y del dho Francisco de Rementeria, y mas le da el dho Marttin de Ocerin en el dho trueque al dho Francisco de Rementeria un ------ que tiene en la fuente (?) de Arguiñano y un robre que esta en el dho termino y monte de Alday,
> Y agora los dhos hombres buenos allaban valer el dho robre y monte de Alday que assi le da en trueque el dho Francisco de Rementeria: a las partidas -------- al dho Marttin de Ocerin, Ducientos Ducados mas los quales el dho Ocerin se obligo de pagar al dho Rementeria para el mes…
> Y lo otorgan anssi ante mi el dho escribano de su magestad…

1696 Pedro Argiñano gazteak 51 dukat balio duten 5 behiburu admeterian ematen dizkio Patxi Rementeria Argiñanori 5 urterarako (Perez Urraza, *400 urteko... op. cit.*).

1704 Urte honetako fogerazioan, **Rementería de Arguiñano** Igorreko Eleiz Kabildoarena dela esaten zaigu, eta Domingo Arteaga dela errentari. Fogera osoa ordaintzen dau.

1739 Juan Arandiak zentsu bat sortzen du Juan Aldekoa Ibarraren alde, eta Argiñanoko Rementeria baserria hipotekatu (*Ibid.*).

Errementeria Igorreko Eleiz Kabildoarena dela dugu 1704ko fogerazinoan; oraingoan, aldiz, Juan Arandiak hipotekatzen du baserria. Eta 1745eko fogerazinoan, berriz ere, Igorreko Kabildoarena dela esango zaigu (*Ibid.*).

1745 Urte honetako fogerazioan **Rementaricoa** baserria agertzen zaigu, Igorreko Eleiz Kabildoarena. Josefa Iturburuaga alarguntsa dugu errentari eta fogera erdi ordaintzen du (*Ibid.*).

Errementeria kokatua zegoen tokia, gaur.

1756ko uztailaren 4an, Baltasar Aranak Rementeria Argiñano baserriko tronkal legitimoa dela dio, eta Mª Antonia Rementeria zenaren alarguna zen Patxi Etxebarriak, Markos eta Josefa Etxebarria Rementeria gaztetxoen izenean, beren aldeko zesioa egin zuela 150 dukatetan. Eta orain, Igorreko eleizkabildoa eta bera, Tomas eta Pantsike Arana bere neba-arrebekin adostu dela baserrirako eskubidearen 2/3a berari saltzeko (*Ibid.*).

Irailaren 25ean, Gasteizko auzakide den Patxi Rementeria Bertzutenek dio Martin eta Magdalena bere gurasoak zirela, eta Patxi Rementeria eta Pantsike Undurraga ezkontideen biloba, eta hauek Rementeria Argiñano baserriko usabak izanik, aiton-amona testamentua egin gabe hil zirela. Patxiren osabak, Tomas eta Patxi Rementeria Undurraga dira. Eta orain, Igorreko eleiz-kabildoko abadeek eta Baltasar Aranak baserriaz jaubetu nahi dutela. Ondorioz, Patxi Rementeriak boterea ematen dio Pedro Artiñano Ametzari.

Urriaren 30ean, Bilbon bizi ziren Katalina eta Manuela Arana Rementeria ahizpek diote Igorreko abadeak modu eskas eta irregularrez Rementeria Argiñano baserriaz jaubetu zirela (*Ibid.* 12).

1761 Urriak 23. Tomas Castilla Corral Igorreko apaiz benefiziodunak bigarren benefiziodun den Manuel Antonio Rekakoetxeari boterea ematen dio, bere izenean, Zeberion, Olabarrietako Santo Tomas parrokian betetzeko gelditu den benefiziorako botoa eman dezan (*BPAH, Notarial-2802. Dionisio Alboniga-Yurre*).

Yo Thomas Joseph de Castilla y Corral Cura y Beneficiado de la Parroquial de Ntra Sra

> Santta Maria de esta Anteyglesia de Yurre, digo que el Cauildo Eclesiastico de ella se compone de solo dos Beneficiados, que el uno soy yo, y el otro es don Manuel Antonio de Recacoechea, también cura de estta dha Antte Yglesia, y por lo tanto hambos estamos en posesion y propiedad gozando y usufructuando la Casa y Caseria de Rementeria de Arguiñano, con todos sus pertenecidos, cita en el Valle de Zeberio, como propia de dho ntro Cauildo; y es asi que a estta dha casa y a nosotros como sus lexitimos poseedores nos corresponde y toca un voto entero de presentación de quelaquiera Beneficio que baca en la Parroquia de Santo Thomas de Olabarrieta de dho de Zeberio; y respecto que al presente sucede el caso de hallarse bacante el que obtuvo don Joseph Antonio de Mendijur…

1785 Bizkaiko Jaurerriko Gobernuaren agindu bati erantzun emateko, urte honetan, Errege-baso, komun eta jabedunei egiten zaie bisita; euren artean, Errementeria etxaldekoei *(MONTES_REG1_LEG2)*.

> Luego reconocieron las jurisdicciones de la casa llamada de **Rementeria**, tocante y correspondiente a los señores del Cabildo venerable de la Anteyglesia de Yurre, y en ellas hallaron dos arboles robres que tienen a cada banda, y de buena calidad, y su conducción a dho embarcadero y leguas por el mismo camino real que los de el citado Allende.

1796 Urte honetako fogerazioan, Rementeria baserria Igorreko Eleiz Kabildoaren dela esaten zaigu; errentari bat dagoela, eta fogera osoa ordaintzen duela (Perez Urraza, *400 urteko... op. cit.*)

1799 Oraingo hau etxalde bakoitzaren ondasun eta emaitzen estadistika dugu (*PROPIOSYARB_REG2*). Igorreko Eleiz Kabildoarena da eta Juan Antonio Beobide omen da errentari.

> Yo Juan Antonio de Beobide, inquilino de la Casa de **Rementeria de Arguiñano** y sus pertenecidos, propia del Cavildo Ecco. de la Anteiglesia de Yurre, declaro bajo de juramento que rinde anualmente en dinero treinta ducados, y en carbón doscientos setenta reales. Son…… 0600

1807 Manuel Antonio Rekakoetxea, presbitero, abade eta Igorreko eleizateko benefizioduna, dugu diligentzia hauetako eragile: Rementeria Argiñano etxaldea saldu nahi da erremate publikoan, baina, antza denez, ez da salmenta hau gauzatzea lortzen *(JCR1314/018)*.

1813 Arantzazuko Udala eta Igorreko Eleiz Kabildoaren (eta bere izenean, Franzisko Ramon Egia, Igorreko eleizateko benefizioduna) arteko izapideak.

Franzisko Ramon Egiak dio Arantzazuko zerga-biltzailearen ofizioa jaso duela eta bertan hirurehun eta hemeretzi erreal eskatzen zaizkiela (martxoaren 16tik abuztuaren 14ra bitartekoak), Errementeria etxaldeari legozkionak, espainiar armadaren gastuei aurre egiteko. Franzisko Ramon Egiak eleiz kontribuzioak ordaintzen dituztela dio eta orain eskatzen zaizkienak ere ordaindu beharko balituzte, orduan, bi aldiz ordainduko lituzketela. *(AJ01426/032)*.

Are, jarraikoa ere aitortzen du:

> Prescindiendo de esto, la casa de Rementeria con sus tierras de pan sembrar, y castaña-

> les fructiferos rinde en renta trescientos y treinta reales, y nada le producen los montes por ser muy pobres. Aranzazu supone pedir un 53% para los gastos del poco tiempo que se ha dicho, y sin embargo intenta "exigir" trescientos y diez y nuebe reales, a los quales añadiendo otros cinquenta que se han pedido sin decir para que, resulta que en seis meses menos dos dias se quiere sacar mas que el todo de la renta.

Bere ustez, Udalaren okerren baten aurrean leudeke.

Arantzazuko Udaleko idazkariaren erantzuna datorkigu jarraian, eta honek diosku ez dela inongo erraturik egon. Are, Errementeria etxaldea eleizatearena dela, Igorreko Kabildoak ez duela inolako jabego titulurik:

> Desempeñando el Alcalde y el Ayuntamiento el informe que V.E. se digna pedirle por su decreto de ----- relativo al memorial presentado por don Francisco Ramon de Eguia Cura Beneficiado de Yurre, sobre que no deeuían contribuciones a la Casa de Rementeria que supone ser de su Cavildo, lo efectua manifestandole a V.E. que el Ayuntamiento ni el recaudador en pedirselas no ha padecido equibocacion. La Casa de Rementeria que don Francisco tomando la voz del cavildo supone pertenecerle, es parte de la riqueza territorial desta Anteyglesia. Ygnora el Ayuntamiento por que título lexitimo la posehe el cavildo, mas no la reconoce por finca Espiritualizada, y si en renta por una simple cantidad que reclamando el heredero lexitimo la haria suia, y mas item debe ser mostrenco que del cavido y no estar en manos nuestras.
>
> El theniente general de Guernica tomo razón della por la enajenación de vienes nacionales, y puesto Edictos para su venta, la que debe realizarse en Beneficio de la Nazion pagando al cavildo los reales porque la tenga en renta, previa la debida justificacion. Su venta con el producto y sus montes está valuada en seiszientos reales por la regularización hecha por la Anteyglesia para el tres y quarto por ziento; En una de las foguerazioness aunque se incluyo en la Estadistica del clero mandada hacer por el Govierno frances que por ziertos amaños sayacer, pero siempre ha sido y es considerado laical y aun quando fue Espiritualizada debe pagar con la propiedad secular por no contribuir el clero por si mas que por los diezmos, y pagar con aquella todas las fincas y demas propiedades de capellanias que antes pagaban con el clero, y estaban desmembradas de la propiedad laical, pero que en el año pasado se debolbieron a vnir ---- por la Estadistica francesa, y por la de V.E. El Clero no paga separadamente sino por sus diezmos. Por lo mismo considera este Ayuntamiento que V.E. debe ordenar a don Francisco Ramon de Eguia que pague lo que se le pide a su Cavildo sin tanta morosidad, ni amedentrar a los recaudadores quando se piden los cupos, y mandar que dicha casa, no manifestando el cavildo titulo lexitimo de pertenencia en el usufructo y propiedad, se venda por vien mostrenco, y se aplique su producto a vienes nacionales, quando no haya lugar a que se haga a beneficio de la anteyglesia, tan agobiada con el peso de contribuciones, y caso de no pagar don Francisco o su cavildo lo que deben, ratificar al Alcalde la comisión para cortar arboles, o vender publicamente las fincas que sean necesarias al pago de las deudas y gastos, embargando al mismo tiempo las rentas. Es quanto puede informar a V.E. en desempeño del Encargo. Aranzazu a octubre 19, de 1813.
> Excelentisimo secretario, Josef Antonio de Ycabalceta.

Izapideok honetantxe bukatzen dira eta ez dakigu zertan gelditzen diren.

1825 *Censo de Policía* izenez ezagututako erroldan agertzen zaizkigunak: Alde batetik, Juan Antonio Beobide, 50 urtekoa, Dominga Iragorrirekin ezkondua. Senarra Zeanurikoa, 50 urtekoa; emaztea, arantzazuarra, 46 urtekoa. 27 urte omen daramatza Juan Antoniok Arantzazun.

Bestalde, Adrian Beobide, 28 urteko arantzazuarra; bere emazte Maria Solatxi, zeberioarra, Arantzazun bost urte daramatzana, eta euren alaba Maria eta Maria Josefa, 4 eta 1 urtetakoak.

1908 Ikusi dugu azken 200 urteotan Errementeria Igorreko Eleiz Kabildoak bere jabetzatza izan duela. 1908ko urte honetan, Hilario Soloeta Amorrortu, Igorreko abadea izango da etxaldea bere izenean inskribatuko duena. Igorreko Anbrosio Urizar Urkiolak eman omen dio eta ez du idatzizko inongo titulurik *(DJE-A, 54)*.

1922 Urriak 30. Etxaldetik, Errementeria baserria bera, hortu zati bat eta etxaurreak; *Belaki, Aitzate, Aitzatetxikerra, Mimena, Zimelbaltza* belardia eta *Otzatezarreta* basoak; *Pagazandikoa, Pagazemetikoa, Zearreta, Otzarte, San Adrianalde, Aguresolo, Apalazelaia* eta *Apalatrokea* lurzailak eta *San Adrianalde* sastraka banandu eta 66 finka osatzera pasatzen dira (*DJE-A, 66*).

Hilario Soloeta Amorrortuk Arantzazuko auzokide dan Pedro San Anton Bustinzari salduko dio eta, harrezkero, bere senitartekoena izango da.

1924 Maiatzak 24. *Uribitarte* lursaila, *Zearretaburu* basoa, *Zearreta* sastraka eta *San Adrianalde* sastrakatik terreno zati bat banandu eta 68, 69, 70, 71 finkak osatzera pasatzen dira (*DJE-A, 54 1*).

Hilario Soloeta Amorrortuk Zeberioko beste finka baten ordez ematen dizkie lau hauek Domingo Etxebarria eta Maria Madariagari.

Genealogiak

(Perez Urraza, *auzokideen zerrendak...*)

1514: Hurtuño Rementeria
1565: Patxi Larrea Rementeria & ?
Pedro (Larrea) Rementeria
1600: Patxi Rementeria Argiñano & Maria Rementeria
Juan Rementeria Argiñano & 1609 Maria Gorostiza Gesala
1630: Juan (Larrea) Rementeria Gorostiza & 1639 Katalina Kareaga Arbildu
Patxi Rementeria Kareaga
1670: Patxi Rementeria Argiñano Kareaga Insunza & Pantxike Undurraga Iturriaga
Tomas Rementeria Undurraga, 1653
Maria Rementeria Undurraga, 1655
Katalina Rementeria Undurraga, 1658
Ana Rementeria Undurraga, 1660
Patxi Rementeria Undurraga, 1661
Pantxike Rementeria Undurraga, 1665
Marina Rementeria Undurraga, 1667
Antonia Rementeria Undurraga, 1670
Martin Rementeria Undurraga, 1672
Bentura Rementeria Undurraga, 1675
1700-1710: Patxi Rementeria Argiñano
1745-1750: Baserriaren jabe: Igorreko eliza
Juan Gallarza Undurraga (?) & 1756 Josefa Iturburuaga Goikoetxea, errentari

[Patxi Rementeria Insunza & Pantxike Undurraga Iturriaga
Tomas Rementeria Undurraga, 1660 & 1682 Pantxike Urraza Errotarte
Maria Rementeria Urraza, 1683 & Txomin Arana (Uriondo) Ipiña
Tomas Arana Rementeria, 1716 & 1759 Maria Manzarraga Olabarria]
1745: Txomin Iragorri Leiza & Maria Ugarte Albizua Arteaga, 1750
Adrian Iragorri Ugarte,1781
Felipe Iragorri Ugarte, 1786
1826 *Censo Policía*: Juan Antonio Beobide Usaola 1775 (Zeani) & Dominika Iragorri Albizu Ugarte, 1780
Adrian Beobide Iragorri, 1798
1) & 1821 Mª Josefa Barañano Goti (defuntu)
2) & Maria Solatxi, 1794
Maria Beobide Barañano, 1821
Mª Josefa Beobide Barañano, 1824
1860: Juan Antonio Beobide Iragorri, 1801 [& 1825 Mª Benita Beobide Uribarri Etxebarri
Mª Antonia Beobide Uribarri, 1826
Mª Benita Beobide Uribarri, 1828
Juan Antonio Beobide Uribarri, 1830]
1924: Pedro San Anton Bustinza, 1891, serrari
& Juana Rosa Rekagorri Goti, 1892
Pedro Antº San Anton Rekagorri, 1923

Pedro Goikoetxea Bilbao (*Peru Argiña*) eta Dolores Etxebarria. Pedro 1896-II-2an jaio eta 1921ean Isidora Etxebarria Bilbaorekin ezkondu zen: Pedro, Bizente eta Santi, ezkontzaren fruitu. Isidora hil eta bere ahizpa Dolores hartu zuen emazte: Jose Antonio Goikoetxea, bigarren ezkontza honetako fruitu. Pedro 1957-X-31n hil zen; Dolores, 1978-V-20an, 75 urte beteak (Atutxa 1996: 3.5)



Etxebarriatarrak

Etxebarria, -a Argiñao----------

(Baserria)

Agiri bilketa:
1745: Echebarria (Perez Urraza, *sendien kokapena... op. cit.* 138)
1761: Echavarria (*Ibid.* 145-151)
1795: Arguiñano Echevarria (*Ibid.* 181)
1861: Echebarricoa (*Ibid.* 295)

Baserri hau ere, udalerriz, Zeberio dugu eta etxaldeari dagozkion lurrak Zeberio, Artea eta Arantzazu bitartean ditu sakabanatuak.

Lurrak

Aipatu ditugun Zeberioko udalerrian kokatutako lurrak honakoak dira:

Izena	Pol.	Partz.	Metroak	Izaera
APALAGAZELAI	11	169	2.317	lursaila
ARKOTXA	11	177	1.974	lursaila
ARTEPEA	10	114	148	lur ataltxoa
BEREZIONDO	11	188	169	lur ataltxoa
ELEIZGAN	11	174	4.060	lursaila
ELEIZOSTE SAGASTUI	11	174	7.762	lursaila
ETXEBURU	11	105	6.628	basoa

ETXEONDOA			1.293	ortua
MENDIKOBASOA	11	107	50.227	basoa
SANADRIANALDE	11	174	20.000	basoa
	12	27, 28		
SANADRIANBARRENA	11	175, 223	3.274	basoa
SOLOBARRIA	11	180	2.511	lursaila
ZEARRETA	12	166	4.357	lursaila
ZEARRETA	11	053	1.072	
ZEARRETABURU	11	186	4.090	lursaila

Guztiak Jabego Erregistroan, Zeberioko udalerrian, 269 finkan inskribatuak.

Arteako udalerrian kokatutako lurra honako hau dugu:

Izena	**Pol.**	**Partz.**	**Metroak**	**Izaera**
GANGORRI	01	093	35.562	basoa

Arantzazuko udalerrian kokatuak dauden Etxebarri baserriaren lurrak:

Aldapa (basoa)
Plan de gestión: Aldapa

Pino Insignis eta Ameriketako aritz-ez landatutako basoa. Eskrituretako azalera: 1.674,24 metro karratu.

Arantzazu, 1 pol. 230 partzela. 0,6369 hektarea. (pinua)
1 pol. 230b partzela. 0,6369 hektarea (aritza)
X: 515.645,49 Y: 4.777.999,25

Aldapa-k *aldatz* adierazi nahi du, 'ladera', 'falda de monte', 'cuesta'+ a artikulua.

Aietzatza (basoa)
Plan de gestión; BJE-Z, 269: Ayesasa

Abeto Douglas-ez landatutako basoa. Eskrituretako azalera: 2.237,00 metro karratu.

Arantzazu, 1 pol. 222 partzela. 0,0982 hektarea. X: 515.780,95 Y: 4.777.517,71

Esanahi iluneko hitza. Luis Mari Mujikak, *Ayestaran* abizena aztertzen diharduela (*Etimología de Apellidos Vascos_Ayestaran*), *aier* hitzaren eratorria litekeela diosku (declive, inclinación, cuesta, pendiente) + *-tza* ugaritasun atzizkia + *aran* hitza. Baliteke, guk ere, *aier* hitza + *-tza* atzizkia, bikoiztua: *aie(r)tzatza* edo izatea.

Ardantzaganeta (basoa)
Plan de gestión; BJE-Z, 269: Ardanza-garreta

Aritzez landatutako basoa. Eskrituretako azalera: 3.995,35 metro karratu.

Arantzazu, 1 pol. 114 partzela. 0,8211 hektarea. X: 516.010,61 Y: 4.778.589,81

Hitzaren osagaiak argiak dira: *ardantza* (*ardao*, konposizioan *ardan-*, + *-tza* ugaritasun atzizkia = mahasduia) + *gane* (goiko partea) + *eta* lokatiboa.

Atxondo (basoa)
Plan de gestión; BJE-Z, 269: Achondo

Abeto Douglas-ez landatutako basoa. Eskrituretako azalera: 3.386,53 metro karratu.

Arantzazu, 1 pol. 238 partzela. 0,4155 hektarea. X: 515.793,65 Y: 4.777.418,76

Bellakin (basoa)
Plan de gestión; BJE-Z, 269: Bellaquin

Pino Insignis-ez landatutako basoa. Eskrituretako azalera: 9.063,74 metro karratu.
Arantzazu, 1 pol. 212 partzela. 0,5578 hektarea. X: 515.814,82 Y: 4.777.786,53
1 pol. 275 partzela. 0,0142 hektarea. X: 515.800,00 Y: 4.777.833,10
1 pol. 276 partzela. 0,01 hektarea. X: 515.741,79 Y: 4.777.824,63

Lupetza, -a (basoa)
Plan de gestión; BJE-Z, 269: Lupeza

Pino Insignis-ez landatutako basoa. Eskrituretako azalera: 15.992,82 metro karratu.

Arantzazu, 1 pol. 218 partzela. 0,4863 hektarea. X: 515.855,04 Y: 4.777.669,05
1 pol. 220 partzela. 0,8603 hektarea. X: 515.914,30 Y: 4.777.622,49

Hitzaren osagaiak: *lupetz* (basatz, lokatz) + *-tza*, ugaritasun atzizkia.

Mozollotegi (basoa)
Plan de gestión; BJE-Z, 269: Mosollotegui

Pino Insignis-ez landatutako basoa. Eskrituretako azalera: 1.103,47 metro karratu.

Arantzazu, 1 pol. 120 partzela. 0,1357 hektarea. X: 516.002,67 Y: 4.778.158,00

Plan de Gestión delakoan, *Catastro de Rústica* lerroan, Zeberiokoa dela dio, lapitzez Arantzazu jarria badago ere. Izan ere, 120 partzela Arantzazuri dagokio, Zeberiokorik ez baita inguruetan agertzen.

Hitzaren esanahia argia da: *mozollo* (*Athene noctua, gauontza, gaueko hegaztia*) + *-tegi* toki atzizkia.

Zearretaburu (basoa)
Plan de gestión; BJE-Z, 269: Cearreta-buru

Pino Insignis-ez landatutako basoa. Eskrituretako azalera: 3.469,24 metro karratu.

Arantzazu, 1 pol. 122 partzela. 0,7667 hektarea. X: 515.879,08 Y: 4.778.190,36

Apalagagoikoa, -a----------

(Baserria)

Agiri bilketa
1861: Apalaga-goicoa (Perez Urraza, *sendien kokapena... op. cit.* 295)
BJE-Z, 271: Apalaga

Rústica. Casería llamada APALAGA, radicante en jurisdicción municipal de la anteiglesia y Ayuntamiento de Ceberio, señalada con el número ciento veintiocho, y que contiene de medida superficial doscientos treinta y nueve metros y setenta y dos centímetros cuadrados.

Etxalde honi dagozkion lurrak Zeberioko udalerrian daude koatuak, guztiak, eta honakoak dira:

Izena	Pol.	Partz.	Metroak	Izaera
APALAGA	11	107, 173	31.483	basoa
APALAGAALDE	11	102, 103	4.250	basoa
APALAGABURU	11	107	5.139	basoa
APALAGAGOIKOA	11	109, 110, 115	15.224	lursaila
APALAGAKOETXEONDOA	11	173	2.891	basoa
APALAGAONDO	11	173	6.670	basoa
ETXEAURREA	11	173	1.034	ortua

Etxebarriatarrak. Albiste historikoa

1511 Foguera vecindario de los avecindados a Miravalles. 1 vecino, Martin de Echebarria, el de Arguiñano, 1 fuego, 1 vecino 1 fuego (Perez Urraza, *sendien kokapena... op. cit.* 36).

1565 Memoria de los vecinos que tienen parte en la renta del Monasterio del Señor Santo Tomas de Olabarrieta y gozan de los frutos y honores del dicho diezmo. Lope de Arguiñano, 1 foguera (*Ibid.* 46).

1570 Juan Kortatxia Arteaga eta Mª Ortiz Etxebarria Argiñanoren arteko ezkontza-kontratua. Alde batetik, Pedro Etxebarria Argiñano eta Marina Arteaga ezkontideak, Zeanuriko Altzusta auzoko Arteaga baserriko ugazabak ziren, seme-alabarik ez eta izateko asmorik Gabe. Bikote honek Marinaren loba den Juan Kortatxiari Zeanuriko Arteaga baserria ematen diote dote. Eta beste aldetik, Arteaga baserrikoek Pedro Etxebarriak eramandako dotearen itzulketa ekiditeko, beronen loba den Mª Otxoarekin ezkonduko da Juan Kortatxia. Horrez gain, Lope Etxebarria Argiñano, Pedroren anaia eta Mª Otxoaren aitak, alabari dotetzat 40 dukat eta arreoa ematen dizkio (Londresko ohian oneko zaiak, zaitxoak, gerruntze, ohea…) (Perez Urraza, *400 urteko... op. cit.* 2).

1572 Arantzazuko Elizateko etxedorrean, Pedro Ortiz Atutxaren alarguna den Mª Ibanes Usansolok, euren seme-alaba gaztetxoen izenean, ondasunen lerrokapen juridikoa eskatzen du. Baserri, ola eta etxaguntza askoren jaube delarik, tartean, zor dizkioten diru-zentsuak agertzen dira. Bikote horrek krediuetan diru asko utzi zuen eta Zeberio Haraneko zordunei dagokionez Lope Argiñanok zentsu bat zor zion (*Ibid.*).

1591 Juan Etxebarria Argiñano, Lope Argiñano defuntuaren semea, oinordeko eta Argiñanoko Etxebarria baserriko jaubea da. Urte berean honakoa agertzen da, Martin Ozerin Argiñanok zentsu bat dela eta Pedro Ortiz Atutxari diruren bat zor diola. Berau zorra nonbait ezin kobratu edo, Ozerin Argiñano baserriaren erdiaz jabetu zen. Pedro Ortiz honen ondorengoek, Juan Saez Zirarruista eta Mª Ibanes Atutxa, baserri erdi hori Juan Etxebarria Argiñanori saldu zioten (*Ibid.*).

1592 Mª Ortiz Ibarrondo Argiñano alargunaren testamentua. Lope Argiñano senar defuntua ehortzia dagoen hilobian lurperatua izan dadin eskatzen du. Gutxienez, 5 seme-alaba izan zituzten: Mª Otxoa, Mª Urtiz, Martin, Txomin eta Juan (Etxebarria) Argiñano (*Ibid.*).

1593 Martin Ozerin Argiñanok bi behi saltzen dizkio Lope defuntuaren seme den Juan Argiñanori. Urte berean, Lope Argiñano eta Mª Ortiz Ibarrondo ezkontide defuntuen seme den Martin Etxebarria Argiñanok, Etxebarria Argiñano baserrira izan dezakeen legitimaren eskubideari uko eginez, Juan Etxebarria Argiñano anaia eta beronen emazte den Mª Perez Argiñanoren aldeko zesioa egiten du (*Ibid.*).

> En la iglesia de Olabarrieta en el Valle de Ceberio a 24 dias del mes de / juio de mil y quinientos y noventa y tres años, en presencia de mi, Pedro de Leguineche / escribano del rey nuestro Señor y testigos de yuso escritos, parecio presente / Martín de Echebarria de Arguiñano hijo legitimo que fue de Lope de Arguiñano y de / Mari Ortiz de Ybarrondo su mujer difuntos qu fueron y él es / del dicho valle de Ceberio, y dijo que por la presente

carta hacia e hizo / cesión, renunciación y traspaso ahora y para siempre jamás / a Juan de Echebarria Argiñano y a María Pérez de Arguiñano su muger / vecinos del dicho Valle de toda la legitima parte que a él, por fin y muerte / de los dichos sus padres le pertenecía en la casa y caseria de Eche- / barria de Arguiñano y en todos sus pertenecidos… (Perez Urraza *aip. lan.*: 3).

1593 Kartzelan dagoen Juan Barañano Ibarrondoren emazte den Mª Ibanes Ibarrondok, senarra espetxetik ateratzeko, Ibarrondo Bekoa baserriaren erdia Juan Etxebarria Argiñanori saltzen dio.

Azkenik, urte honetan beretan, Martin Etxebarria Argiñano eta Mª Diaz Barañanoren arteko ezkontza-kontratua dugu. Alde batetik, Juan Etxebarria Argiñano eta Mª Perez Etxebarria ezkontideek Martin semeari honakoa ematen diote dote: Etxebarria Argiñano baserria eta Etxaso auzoko baserria, dolare, kupelategi, ohe, solo, gaztainadi, harizdi eta etxaguntza guztiak, eta Olabarrietako Patronazgoaren eskubidea, baina usufruktuaren erdia eurentzat gordez. Eta beste aldetik, Santxo Barañano eta Mª Martinez Barañano ezkontideek Mª Diaz alabari ondoko dote hau: urrezko 180 dukat, 2 ahuntz umeekin, ardia umeaz, kaxao, ohea, jantziak, ohial zaiak eta beste andrazkoen gauzak (*Ibid.*).

1621 Martin Etxebarria Argiñano Barañano eta Mª Ibanes Arbildu Arbilduren arteko ezkontza-kontratua. Alde batetik, Martin ezkongaiak, Martin Etxebarria Argiñano eta Mª Diaz Barañano defuntuen semeak, Argiñano Etxebarria eta Etxasoko baserriak hartzen ditu dotetzat. Eta bestetik, Santorin Arbildu eta Mª Saez Arbildu gurasoek 170 dukat eta arreoa (7 aldiz jantzitako ohea, kapa, 8 buruko…) ematen dizkiote Mª Ibanes alabari. Mª Ibanes hau Martin Arabilduren arreba da. Martin Etxebarriak ere arreba bat du, Mª Martinez Etxebarria Argiñano deitua (*Ibid.*).

1626 Martin Etxebarria Argiñano eta Mª Diaz Barañano ezkontideen seme-alaben tutore eta zaintzaile zen Santxo Barañanok ordainagiria ematen dio Pedro Arana Arkulandari, honen aita Juan Arana Arkulandak haiei zor zien kontua ordaindua gelditzen delarik (*Ibid.*).

1628 Martin Etxebarria Argiñanok 40 dukat ordaintzen dio Juan Gesala Areilza errementariari (*Ibid.*).

1641 Martin Etxebarria Argiñano eta Mª Ibanes Arbildu ezkontideek diru-zentsua sortzen dute, Argiñano Etxebarria baserria hipotekatuz (*Ibid.*).

1673 Juan Ipiña Ametzola eta Maria Argiñano Etxebarriaren arteko ezkontza-kontratua. Pedro Argiñano Etxebarriak 200 dukat dote ematen dizkio alabari. Egun berean, Pedrok 2100 dukateko zentsua sortzen du Juan Barañano Isasiren alde, eta horretarako Argiñano Etxebarria baserria hipotekatzen dute (*Ibid.*).

1674 Juan Goti Etxasoren seme eta oinordeko zen Juan Gotik eta Pedro Argiñano Etxebarriak pleitua dute. Arazoa honakoa zen: Etxaso auzoan, Pedroren etxe nagusiaren aurrean etxetxo bat berreraiki eta altzatu nahi du Juan Goti Etxaso gazteak. Auzokideen kalterako zelakoan, hauek salatu egiten dute Juan. Bakoitzak bere harotzak izandatzen ditu: Juanek Txomin Ibarrondo Nagusia eta Pedro Argiñano Etxebarriak Arantzazuko

Martin Etxebarria, etxetxuan gertatutako obrak xeheki miatzeko. Azkenean, alde biak konpondu egingo dira (*Ibid.*).

1676 Adrian eta Pedro Argiñano Etxebarria anaiak dira eta azken hau Argiñano Etxebarria baserriaren eta Etxasoko etxe zatiaren usaba da (*Ibid.*).

1678 Pedro Garaik Garai baserriari dagokion *Zearreta* basoa saltzen dio Pedro Argiñano Etxebarriari (*ZUA. 21. karp. Eskribaua: Juan de Urquiza. 29-30 fol.).*

> En el varrio de Arguiñano de este Valle de Zeberio a Diez y seis días del mes de febrero de mill y seiscientos y setenta y ocho años, ante mi el escriuano y testigos parecio presentte Pedro de Garay Vezino de la anteyglesia de arancacu a quien doy fee conozco ===
> Y dixo que en la forma que mas hauia lugar en derecho vendia y vendio por Venta Real y Juro de heredad para agora y para siempre jamas del mundo quan firme como de derecho … a Pedro de Arguiñano Echebarria, vezino de este dho Valle que estta presente, para si, sus hijos y Herederos y derecha Voz, a saber: Un pedaco de xaro que tiene y le pertenece en el termino que llaman CEARRETA, que es notorio que el dho pedazo de xaro alinda por ambos lados con jarales que el dho Pedro de Arguiñano Ehevarria, comprador, y por la parte de auaxo también con tierras de pan sembrar del dho Pedro de Echebarria y por la parte de arriua con y pedaco de xaro de Francisco de Rementeria de Arguiñano, por la cantidad de trescientos reales de vellón, de los quales…

1690 Pedro Etxebarria Argiñano gazteak 100 dukateko ordainagiria ematen dio Gaztelu Eleixabeitian auzakidetua zegoen Martin Argiñano Aloari (Perez Urraza, *400 urteko... op. cit.* 4).

1695 Abuztuaren 22an, Pedro Argiñano Etxebarriak testamentua burutzen du. Argiñao auzoko Etxebarria baserriak Santo Tomas eleizan duen hilobian lurperatua izan dadin eskatzen du. Oinordeko, Pedro semea izendatzen du. Maria alaba, berriz, Juan Ametzolarekin ezkondua dago. Zeberiotar batzurekin abelburu-admeteria kontratuak ditu: Juan Urteaga Agirrek 6 behi, Balentin Ametzolak 3 behi; eta abelburu hauek Maria alabarentzat dira (*Ibid.*).

1696 Pedro Argiñano gazteak 51 dukat balio duten 6 behiburu ematen dizkio admeterian Patxi Rementeria Argiñanori, 5 urterako (*Ibid.*).

1704 Juan Albizu Eguzkiza eta Maria Argiñano Etxebarria Artetxeren arteko ezkontza-kontratua. Alde batetik, Juan Albizu eta Maria Eguzkiza gurasoek Juan semeari Arantzazuko Albitzu baserria eta bere ondasun guztiak (soloak, sagasti, gaztañadi, harizti, berezi, ortu eta labea, eta etxeko ajuar, menaje eta soloko erreminta guztia, eta baserriak dituen ohore, eskubideak eta eleizako aulki eta hilobia) ematen dizkiote dotetzat. Horrez gain, ahunzburuen erdia, 4 ardi eta beren kumeak eta behintxa ernaldua.

